

4. Diru sarrerak

Bi motatako bezero izango ditugu. Alde batetik CO2 garbitzea nahi duten industriak eta bestetik eraikuntza lanetan aritzen diren enpresak. CO2-a garbitzen duten industrietatik ordainketa errepikariak jasoko ditugu eta prezioak finkoak izango dira, gure zerbitzuak balio berdina izango baitu. Laborategia finkatuko dugunez enpresan, kontratu bat sinatu beharko dute enpresek hiru urtetan gutxienez gure zerbitzuak hartzeko.

Eraikuntza lanetan aritzen diren enpresek ordainketa bakarreko diru-sarrerak emango dizkigute eta gure prezioak dinamikoak izango dira eskaintza eta eskariaren arabera. Beharrezkoa dugun basaltoaren eta lortu dugun CO2-aren prezioaren arabera, prezioak handiagoak edo txikiagoak izango dira eraikuntza harrietarako.



Ramhoo etekinak



